



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko irailaren 28a

79. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planari buruzkoa. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako lurralde aberastasunaren erregistroari eta katastroei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Etxalarko Landagain ikastetxe publikoko irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planari buruzkoa.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Osoko Bilkuran irizpenari buruzko zuzenketa hau defendatzen ahalko da:

– 15. zenbakiko zuzenketa, Aralar parlamentutaldea aurkeztua.

Zuzenketa 2006ko uztailaren 6ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika lana arautzen duen lege esparrua ezarri zuen, foru erkidegoko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adinako informazio fidagarria eta alderagarria edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horretan berean, datuen hornitzaileek eta informazioaren erabiltzaileek estatistika lana garatu eta betetzen duen organoarekin dituzten harremanak arautzen dira. Bertan, datuak eman beharra, emaitzak egoki argitaratu eta

zabaldu beharra eta betiere isilpekotasun estatistikoa errespetatu beharra ezarri dira. Era berean, Estatistika Plana estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko baliabide egokia dela adierazten du. Lan hori Nafarroako Estatistika Sistemak egiten du.

Aurrerago, ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak garatzeko asmoz, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko azaroaren 19ko 15/1998 Foru Legea onetsi zen, plangintzarako lehenengo tresna gisara, foru erkidegoko lan estatistikoa bideratu zuena, izan ere, lehenbizi helburuak mugatu zituen eta lehentasunak finkatzeko arau batzuk ezarri, erakunde publikoek eta gizarte agenteek erabakiak hartzeari begira.

Denborarekin, sistema hori sendotu da, 2003-2006 urteetako Nafarroako Estatistika Planari buruzko urriaren 28ko 28/2002 Foru Legeari esker eta aipatutako bi foru legeetan aurreikusita dauden urteko estatistika programei esker.

Azkeneko plan horren indarraldia bukatu denez, beste bat onetsi beharra dago, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planari buruzko foru lege honen bidez.

Lege testu hau ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenekin bat dator. Helburuen arabera plangintza sistema batean oinarriturik, Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea du helburu, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzuteko eta lantzen diren adierazleek erakunde publikoei eta eragile ekonomiko eta sozialei informazioa eman diezaieten. Ahal den guztietan, genero ikuspuntua sartuko da eta ahalik eta gutxien gastatzea eta dauden iturriak ahalbait gehiena aprobetxatzea bilatuko da, lan bikoizketak saihestuz, herritarrei, enpresei eta erakundeei eragiten zaizkien trabak gutxituz eta isilpekotasun estatistikoa eta informazio esta-

tistikoaren eskuragarritasuna eta lastertasuna bermatuz.

Horrez gain, foru lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publikoen zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Institutuak plan hau betetzeko izanen dituen eginkizunak ere.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Nafarroako 2007-2010 urteetarako Estatistika Plana.

Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planak, foru lege honek onesten duenak, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika lana sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna den aldetik, lankidetzaren instituzionalaren esparrua zehazten du Nafarroako Gobernuaren eta honako hauen artean:

- a) Haren erakunde eta enpresak.
- b) Entitate publikoak.
- b') Beste autonomia erkidegoak.
- c) Erakunde nazionalak eta nazioartekoak.

Lankidetzaren horren xedea da Nafarroako estatistika sistema bere inguruko sistemakiko koherentzia, homogeneotasuna eta alderagarritasuna lortzen joatea.

2. artikulua. Indarraldia.

Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planak, arau honetan bildutakoak, 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitarte izanen du indarra. Plana iraungitzean, hala ere, besterik onetsi ez bada, plana hurrengoak indarra hartu arte luzatuko da, salbu eta ezarritako epe edo aldien arabera baztertu behar diren eragiketetan.

3. artikulua. Entitate estatistika-sortzaileak.

1. artikuluko a) letran aipatutako entitateek prestatuko dituzte plan honek eta berau garatzen duten urtean urteko estatistika programek haien esku uzten dituzten estatistikak, zuzenean edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

4. artikulua. Estatistika Planaren koordinazioa.

Nafarroako Estatistika Institutuak estatistika plana eta urtean urteko estatistika programak bultzatuko ditu, eta helburu horrekin honako eginkizun hauek beteko:

a) Urtean urteko estatistika programarako proiektuak prestatu eta horien izapidetzea eta onepena sustatzea.

b) Estatistika planen eta urtean urteko estatistika programen aginduz, estatistika eragiketak egin behar dituzten Nafarroako administrazio publikoei behar duten aholkularitza teknikoa ematea.

c) Foru lege honek eta berau garatzen duten urtean urteko estatistika programek haren esku uzten dituzten estatistika lan instrumentalak egin edo proposatzea.

d) Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak estatistikak erregulatzeko aurreikusten dituen arau teknikoen proiektuak prestatu eta horien izapidetzea eta onepena sustatzea, estatistika planaren eta hori garatzeko emandako urtean urteko estatistika programen arabera haren esku utzi baldin badira.

e) Estatistika planaren eta urtean urteko estatistika programen aginduz estatistikak egin behar dituzten Nafarroako administrazio publikoek lan horiek estatistikari buruzko legeak betetzeko prestatzen dituztela begiratzea.

f) Estatistika lanen kalitatea bermatzea, behar diren egiaztapenak eginez.

g) Informazio eta dokumentazio estatistikoaren Nafarroako inbentarioa egin eta haren mantentze-lanaz arduratzea.

h) Nafarroako estatistika planean sartuta dauden estatistikaren jarraipena egitea.

i) Estatistikaren arloan behar diren harremanak sustatzea foru lege honen 1. artikuluan aipatzen diren entitateekin.

5. artikulua. Estatistika lanak.

Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira estatistika lantzat:

a) Estatistikak egiteko datu kuantitatibo zein kualitatiboak bildu, lortu, tratatu eta gordetzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko izaera duen beste edozein, Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

b) Aurreko letran zehaztutako aurretikoak edo osagarriak diren jarduera instrumentalak, legeak eska ditzakeenak edo teknikoki beharrezkoak direnak estatistikaren arloko legediak ezartzen dituen baldintzak bete ahal izateko, hau da, estatistikaren arloko prestakuntza espezifikokoak, ikerketa lanak eta teknika, metodologia eta arauak garatzeko jarduerak.

II. KAPITULUA

Estatistika planaren helburuak

6. artikulua. Planaren helburuak.

Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planak Nafarroako estatistika sistema garatu eta handitzea du helburu, gizarteak eskatzen dituen informazio beharrei erantzuteko. Honako premisa hauek aintzat hartu behar ditu: genero ikuspuntua; ahalik eta gutxien gastatzea eta dauden iturriak al bait gehien aprobetxatzea; lan bikoizketak saihestea; herritarrei, enpresei eta erakundeei eragiten zaizkien trabak gutxitzea; isilpe estatistikoa eta datuen babeserako araudiaren betetzea bermatzea, eta informazio estatistikoa eskuragarritasuna eta lastertasuna bermatzea.

7. artikulua. Helburu orokorra.

Aurreko artikuluan ezarritako helburu orokorra funtsezko eta oinarrizko irizpidea izanen da estatistika planaren gauzatzean esku hartzen duten organo guztiek erabakiak hartzerakoan, eta interpretaziorako irizpidetzat hartuko da foru lege hau eta bera bete eta garatzeko ematen diren xedapenak aplikatzean.

8. artikulua. Helburu berariazkoak.

Helburu orokorra erdiesteko, helburu berariazkoak ezartzen dira, informazio arlokoak, antolamendukoak eta instrumentalak.

a) Informazio helburu berariazkoak datu eta emaitza estatistikoen beharrak asetzekoak dira.

b) Antolamendu helburu berariazkoak dira administrazio publikoen baliabide eta informazioak zentzuz erabil daitezzen lortzekoak.

c) Helburu instrumental berariazkoak dira estatistika-langintza behar bezala egiteko behar diren normalkuntza eta prozedura metodologikoak garatzekoak.

9. artikulua. Informazio helburuak.

Informazioari dagokionez, hauexek dira helburu berariazkoak:

a) Informazio ekonomikoa handitzea, bilakaera ekonomikoaren jarraipen zorrotz eta eguneratua ezarri ahal izateko, lan merkatuaren funtzionamendua eta ekoizpen jarduna hobeki ezagutzeko bide emanen duten estatistikak landuz.

b) Demografian eta arlo horrek beste arlo batzuekin duen loturan sakontzea, bereziki lan merkatuari, giza baliabideen prestakuntzari, osasunaren arloko plangintzari eta bizilagunen ongizateari dagokienez.

c) Estatistika sozialak, soziolinguistikoak, lurraldeari eta generoari buruzkoak sustatzea, eta halaber, bizilagunen bizi kalitatean eragina duten alderdiak hobeki ezagutzen laguntzen duten adierazleak.

d) Ingurumenaren arloko estatistikak garatzea, natur baliabideen egoera, ingurumenaren bilakera eta bestelako fenomeno ekonomiko eta sozialekin duen lotura zehatz-mehatz ezagutzeko lortzeko.

e) Gizartean sortzen diren informazio behar berriak ezagutzeko sustapen lana egitea, gizartearen edozein arlotan ager daitezkeen egoera berriei buruzko azterlanak abiaraziz.

10. artikulua. Antolamendu helburuak.

Antolamenduari dagokionez, hauexek dira helburu berariazkoak:

a) Nafarroako estatistika sistemaren artikulazioa sendotzea honakoak bermatzeko: intimitatea errespetatzea, isilpekotasun estatistikoa, egindako estatistikaren zehaztasuna eta zuzentasun teknikoa, emaitzen zabalkundea eta informazioa gorde eta ematearen segurtasuna.

b) Nafarroako estatistika sistemaren eta Estatu-ko, Europar Batasuneko eta autonomia erkidegoetako sistemen arteko lankidetzaren instituzionalaren alde egitea, dauden iturriez baliatu, alderdi guztien intereseko proiektuak egin eta baliabideak aurreratu ahal izateko, eta herritarrei eta enpresei eginko informazio eskaerak ez errepikatzeke.

11. artikulua. Helburu instrumentalak.

Hauexek dira berariazko helburu instrumentalak:

a) Informazio estatistikoa zabaltzeko bideak bultzatzea, Nafarroako estatistika zabalkunderako sistema integratua ezarri ahal izateko eta erabilzaileek informazioa eskura izatea errazteko.

b) Nafarroako estatistika publikoaren arloko prestakuntza espezializaturako eta hobekuntzarako behar diren jarduerak gauzatzea, Nafarroako estatistika sisteman sartuta dauden langileei eta beste profesional eta erabiltzaile batzuei metodo, teknika eta iturri estatistikokoak hobeki ezagutzeko aukera emateko.

c) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, alderdi metodologikoetan eta foru erkidegoarentzat interesa duten gaiak aplikatutakoetan, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizartea, ingurumena, lurraldea, hizkuntza-egoera edo sortzen diren informazio-beharrian berriak hobeki ezagutzen laguntzeko.

d) Nafarroako estatistika sistemak emandako informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta alderagarritasuna, beste autonomia erkidegoetako, Estatuko eta Europako sistemekiko, sustatzea.

e) Nafarroako informazio estatistikoaren lurralde erreferentziarioa garatzea.

III. KAPITULUA Estatistika planaren garapena

12. artikulua. Urteko programa.

Informazio helburu berariazkoak urtean urteko estatistika programen bidez garatuko dira. Programa horiek zehaztuko dituzte urte bakoitzean egin beharreko jarduerak.

Helburu instrumental berariazkoak horretarako onetsiko diren programen bidez garatuko dira.

13. artikulua. Estatistikako eragiketa jakin batzuk sartzea.

1. Salbuespen gisa, eta horretarako arrazoiak azalduz sartzen diren programan, planean agertzen ez diren eragiketak sartu ahal izanen dira urtean urteko estatistika programetan, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako estatistika planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Haien funtsezko osagaiak, bereziki Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2 b) artikuluan ezarritako zehaztapenak, agertzen dituen oinarritzko proiektu tekniko bat izatea, egin beharreko jarduera estatistikoaren fidagarritasuna bermatzeko.

c) Aplikatzekoak diren zehaztapen teknikoek lotzea.

d) Haien metodologiatik emaitza fidagarriak eta, orobat, beste estatistika batzuekiko alderagarriak lortzeko bide ematea.

e) Bidezkoa den kasuetan, aldizka eguneratze-ko aukera ematea.

f) Teknikoki erabili ahal den lurralde desagregazio handienarekin egitea, hori baliagarritzat jotzen denean.

g) Emaitzak zabaltzeko modua aurreikustea.

2. Estatistika jarduera horiek urteko estatistika programetan sartzea eta gauzatzea betiere aurrekontu eta antolaketa baldintzei loturik egonen da.

3. Urteko estatistika programetan sartutako estatistika jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialtzat joko dira, eta horiek pres-

tatzeko eskatzen diren datuak ematea nahitaezkoa izanen da, Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

14. artikulua. Baldintzak.

Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egiten diren eragiketa estatistikoek aurreko artikuluan araututako eragiketari eskatzen zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.

15. artikulua. Urteko estatistika programa onestea.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, urtean urteko estatistika programa onetsiko du programari dagokion urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.

Urteko estatistika programaren indarraldia urte naturalarena izanen da, baina luzatu ahal izanen da hurrengo onetsi bitartean, haien izaera dela-eta jarraipena beharrezkoa duten jardueren kasuan.

16. artikulua. Jarraipen txostena.

Nafarroako Estatistika Institutuak urtean urteko estatistika programa bakoitzaren jarraipen txostena eginen du Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, bidezko baldin bada.

Era berean, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika plana ebaluatzeko proposamena eginen du, planaren indarraldia bukatutakoan, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, departamentu bakoitzak egin dituen lan estatistikoaren berri emateko Nafarroako Estatistika Institutuari igorriko dizkion oroitidazkietan oinarriturik, Nafarroako Estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legearen ezarritakoarekin bat.

Aurretik, Nafarroako Estatistika Kontseiluari eman beharko zaio agiri horien berri.

IV. KAPITULUA Erakundeen lankidetzak

17. artikulua. Entitate laguntzaileak.

Entitate laguntzaileak izanen dira Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekin bi alderdien intereseko helburuetarako hitzarmenak sinatzen dituztenak.

Aipatutako departamentuak, Nafarroako Estatistika Institutuaren bidez, eta entitate laguntzaileak bi alderdien intereseko informazio estatistikoa

luzatuko diote elkarri, bai eta estatistikak prestatzeko behar den laguntza teknikoa emanen ere.

18. artikulua. Nafarroako Estatistika Institutuaren harremanak.

Nafarroako Estatistika Institutuak estatistika lanak egiten dituzten entitate, instituzio edo erakunde mota guztiengana jotzen ahalko du interesgarria deritzon, Nafarroako 2007-2010 urteetarako estatistika planean ezarritako helburuak kudeatzeko soilik.

19. artikulua. Lankidetzaren hitzarmenak.

Nafarroako Gobernuak, foru erkidegoan hartutako laginak hobetu ahal izateko, lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izanen ditu kasuko estatu-erakundeekin eta beste autonomia erkidego batzuekin, horrela haien desagregatueta ateratzen diren estatistiken adierazgarritasuna hobetu eta Nafarroari buruzko ustiapen osoagoak ahalbidetzeko.

20. artikulua. Lankidetzaren teknikorako hitzarmenak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak lankidetzaren teknikorako hitzarmenak sinatu ahal izanen ditu 18. artikuluan aipatzen diren entitate, instituzio eta erakundeekin.

V. KAPITULUA

Emitza estatistikoen zabalkundea

21. artikulua. Zabalkundea.

Estatistika planaren helburuak lortzeko, estatistika lanaren emaitzen zabalkundea, zeinak betiere bermatu beharko baitu isilpekotasun estatistikoa, egin beharko da datuen gaurkotetasunaren eta zabalkundearen lastertasunaren printzipioak betetzeko eta informazio teknologia berrien erabilera lehentziz.

22. artikulua. Informazioa eskura izatea.

1. Nafarroako Estatistika Institutuak estatistika planean eta urtean urteko estatistika programetan dauden estatistiken emaitzak eskura eduki, zabaldu eta argitaratu beharko ditu.

2. Nafarroako Estatistika Institutuak Nafarroako estatistika sistemako gainerako erakunde eta organoetara erraztasunak emanen dizkie, nahi badute institutuaren webgunean Nafarroarendako interesgarriak diren estatistika lanaren emaitzak sar ditzaten, bai zuzenean, bai beste webguneekiko esteken bidez.

Xedapen gehigarri bakarra. 2007. urteko Estatistika Programaren onespena.

Nafarroako Gobernuak, beranduenik, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean onetsiko du 2007. urteko estatistika programa.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetzen diren xedapenak.

Indarrik gabe uzten dira Nafarroako 2003-2006 urteetako estatistika planari buruzko urriaren 28ko 28/2002 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduzko garapena egiteko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2007ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako lurralde aberastasunaren erregistroari eta katastroei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako lurralde aberastasunaren erregistroari eta katastroei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko ekainaren 29ko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

3/1995 Foru Legeak araubide orokorra ezarri zuen Nafarroako katastroentzat, eta jauzi kualitatiboa ekarri zuen ondasun higiezin zerga araubideari eta ondasun horien eta Jabetzaren Erregistroaren arteko koordinazioari begira, lehenagotik ere abiarazia zena maila apalagoko arauen bitartez.

Aurrerago, aldaketak egin ziren 3/1995 Foru Legean, lurzati zedulen titularren nortasuna babestu edo ezkutatzeko alderdi funtsezkoari dagokionez. Babestu edo ezkutatze horrek, jakina, urratu egiten du Jabetza Erregistroaren eta Lurralde Aberastasunaren Erregistroa izenekoaren arteko koordinazioaren printzipioa.

Hori gutxi balitz, 3/1995 Legea onetsi ondotik eta foru lege proiektu hau aurkeztu aurretik, garrantzi handiko jazoera bat gertatu da, terminologiari begira baino ez bada ere nabarmena dena. Alegia, Estatuan 48/2002 Errege Dekretua onetsi zen; geroztik, 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuak ordeztu du hura, eta aldaketaren baten ondotik 417/2006 Errege Dekretuaren bitartez garatu da.

Estatuarentzat berria den araudi horrek gaintu egin du Nafarroako araudia, nolabait ere aurretikoa baita; proiektu hau dela medio, ordea, atzeratuta geldituko litzateke. "Erregistro" hitza erabiltzeak izendapena bera oker erabiltzea dakar,

nahasmena eragin baitezake, eta horrek agerian uzten du auzia.

Lege berri bat taxutzea litzateke bidezkoena, dagoena korapilatu gabe, haren terminologia eguneratu, Estatukoarekin parekatu eta zailtasun gehiago ez eragin.

ARTIKULUEI

AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan honako testua gehitzeko zuzenketa:

Nafarroako higiezin katastroa lege honetako 9. artikuluan eta hurrengoetan arautzen diren udal katastroen baturak osatzen du.

Zioak: Udal katastroek osatzen dute Nafarroako higiezin katastroa; Lurralde Aberastasunaren Erregistroa izenaren bidez ez da ondo izendatzen, izen hantuste baina zorrotzasunik gabea baita; izan ere, udal katastroek, batuta, higiezin katastroa osatzen dute.

2. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko azken lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lerrokad horren eduki kriptikoak ez ditu betetzen segurtasun juridikoaren eta zorrotzasunaren irizpidea.

3. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau horrek eskubide pertsonalak urra ditzake, eta ez dio ezer ekartzen legeari.

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 4. artikuluko 1. idatz-zatiaren ordezkari honako testu hau jartzea proposatzen da:

“1. Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren kontserbazio lana Nafarroako Zerga Ogasunari dagokio, foru lege honetan ezarritako moduan. Erregistroa mantendu eta eguneratzeko, lankidetzan aritzeko formulak ezarriko dira udalekin.

Zioak: Administrazioeko erregistro baten kontserbazio lana partekatzea zaila da, areago halako kasu batean, Nafarroako Zerga Ogasunaren ez beste inoren mende dago eta. Besterik da hartan jasotako datuak udalekin lankidetzan eguneratu beharra.

5. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatiak kentzeko zuzenketa.

Zioak: 4. idatz-zatian artikuluko bereko 2. idatz-zatiko ideia bera errepikatzen da, eta 5.ak, berriz, aurreragoko zuzenketa batean defendituko dugun publikitate printzipioa urratzen du.

6. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa; izan ere, kontzeptu hori 5. artikuluan dago jasota; izan ere, ondasun bat hirurena baldin bada eta besterik esaten ez baldin bada, bakoitzari ehuneko 33,33 dagokio, eta hala ez baldin bada, tituluak dioena.

7. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Agiriak aurkeztu beharra araututa dago jada, eta erregistro eta notarioentzat azaltzen den betebeharra alferrekoa eta nekeza da gure ustez. Izan ere, notarioek sistematikoki igortzen dizkiote

eskritura guztiak Ogasun Departamentuari, eta hortaz, lasai asko askietsi daiteke bestelako betebeharririk ezarri gabe.

Artikulu horretako 4. idatz-zatia ez dator bat legedia indardunarekin, eta gainera ez da beharrezkoa.

Hemendik gutxira, notariotzen, erregistroen eta katastroen arteko koordinazio digitalari esker –alegia, modernotasunaren zerumugan– ez dira beharrezkoak izanen eta ez dira inoren buruan sartuko “lankidetzan nekagarri” horiek.

8. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Fitxategi horien erregularizazioak ez du inolako interes publikorik, ondorio informatiko hut-sak direlako.

9. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Katastroen kontserbazio lana udalei dagokie, Nafarroako Zerga Ogasunarekin lankidetzan, 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Zioak: Lege proiektuak konpartimentu estankok egiten ditu Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren eta katastroen artean, zein bere aldetik mantendu daitekeelako ustean, eta hori ez da horrela.

10. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikuluko 4., 5. eta 7. idatz-zatiak ordezkari zuzenketa.

“Ekonomia Departamentuan zein organori esleitzen zaion, harek egun, Nafarroako Gobernuko Zerga Politikako Zuzendaritza Nagusiak– mantenduko du Nafarroako katastro orokorra, udal katastroen batura baita.

Katastroaren aldaketak eta balorazioak erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera eta lege honetan arautzen den prozeduraren arabera egingen dira.

Zioak: Lurralde aberastasunaren eta katastroaren arteko diferentzia fikzioa da, eta benetakoa ez izateaz gain, ez da funtzionala; halatan, proiektua absurdoraino heltzen da esaten duenean katastroen kontserbazio lana udalei dagokiela (2. idatz-zatia, zuzenketa aurkeztu zaiona) eta higiezin-unitateei buruzko oinarritzko datuak lurralde erregistrotik hartuko direla.

11. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 8. eta 9. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa.

“8. Udalari eta Nafarroako Zerga Ogasunari dagokie...”

“9. Udalari eta Nafarroako Zerga Ogasunari dagokie...”

Zioak: Nafarroako higiezin katastroa eta udal katastroak errealitate beraren bi alderdi dira, elkarri lotuta daudenak, eta horrenbestez, administrazioaren bi adierazpide horien kontroletik jaulki daitezke ziurtagiriak.

12. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Testua 5. artikuluari lotzen zaio, eta hortaz ez da beharrezkoa.

13. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Erreferentzia orokor bat da.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 11. artikuluan, “katastroaren kudeaketarako beharrezkoak” jarri ordez “katastroaren mantentze eta kontserbazio lanerako beharrezkoak” jarriko du.

Zioak: Erabili den terminoa –kudeaketa– zabalagoa eta zehaztugabeagoa da “mantentze eta kontserbazio lana” baino, eta horiexek dira, hain zuzen ere, 7. artikuluan Lurralde Aberastasunaren Erregistroarekiko lankidetzari buruz erabili direnak.

15. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Datu pertsonalak babesteari buruzko alderdi oro, hala nola datu horiek emateko ahalmena, oinarritzko bi printzipioren arabera egin behar da: a) publizitatearen printzipioa eta b) Jabetza Erregistroko datuei lotzea; halatan, katastroak koherenteak izanen dira azkenean.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 19. artikuluko 1. idatz-zatian, “kontserbazio lanari lotuta” jarri ordez “mantentze eta eguneratzeari lotuta” jarriko du.

Zioak: 4. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat, kontserbazio lana Nafarroako Zerga Ogasunaren esku gelditzen da.

17. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 19. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letran, “kontserbatzeko” jarri ordez “mantendu eta eguneratzeko” jarriko du.

Zioak: 4. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat, kontserbazio lana Nafarroako Zerga Ogasunaren esku gelditzen da.

18. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

20. artikuluko 2. idatz-zatiko hirugarren lerrokan, “Inskribatu beharreko doikuntza teknikoan

berri interesdunei eman beharko zaie” eta gero “banakako jakinarazpen baten bidez” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: 21. artikuluan ondasun higiezin balioren aldaketei ematen zaien garrantzi bera ematea aldaketei edo doikuntza teknikoei, eta horrenbestez, bi kasu horietan ere banakako jakinarazpena egin behar izatea. Jarduketaren berri izateko modua da, zuzenketa aurkeztu zaion lerrokadan adierazi bezala.

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 21. artikuluko 5. idatz-zatiko bigarren lerrokadan, “ezarri ahalko ditu” jarri ordez “ezarriko ditu, foru lege honek indarra hartu eta gehenez ere urtebeteko epean” jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Aukera eman ordez, legezko betebeharra ezartzea, arrazoizkoa den epe batean.

20. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. 21. artikuluko 6. idatz-zatian, “Idatz-zati honen bigarren lerrokadaren arabera “ jarri ordez “21. artikuluko honetako 5. idatz-zatiko lehen lerrokadaren arabera” jarriko du.

Zioak: 6. idatz-zatiak ez du bigarren lerrokadarik.

21. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25. artikuluko 5. idatz-zatiko bigarren lerrokadan, “aurkezten den informazioak lan tekniko konplexu samarra edo kantitate aldetik handi samarra egitea eskatzen badu” kentzea proposatzen dugu.”

Zioak: Udalen esku uztea kasu guztietan eskatzaileei kostuak egozteko araubidea.

22. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25etik 32ra bitarteko artikulua (biak barne) aldatzeko zuzenketa. Horien guztien ordez artikulua bakarra egonen da. Hona testua:

Katastroko datuak aldatzeko ekimena. Katastroko datuak era honetan alda daitezke: a) ofizioz, katastroko titularra den udalak nahiz Nafarroako Foru Komunitateak sustatuta, eta b) alderdi legitimo batek hala eskatuta, halakotzat hartuta aldaketaren xede den katastroko ondasunarekin zuzeneko lotura duen edozein pertsona edo entitate partikular.

Ondasunaren katastroko inskripzioan jasota dagoen edozein daturi buruzkoa izan daiteke aldaketa (edukiera, titulartasuna, irudikapen grafikoa, mugak eta abar).

Katastroa aldatzeko ekimena, edozer ebatzi aitzin, nahitaez jakinarazi beharko da, 15 eguneko entzunaldia emanez aldaketak ukitzen ahal dituen guztiei, bereziki mugakideei eta horren gaineko zainahi titulartasun dutenei.

Aldaketa zein udaletan sustatu den, udal horrek onetsiko du ebazpen baten bidez, eta ebazpen horrek itxi egingen du administrazio bidea, baldin eta entzunaldiak iraun bitartean horren aurka egin ez bada.

Entzunaldiak iraun bitartean ekimenaren aurka egiten baldin badu alderdietariko batek, katastroaren jabe den udalak behin-behineko ebazpen bat emanen du, eta Nafarroako Foru Komunitateari igorriko dio; Nafarroako katastro orokorra mantentzeaz arduratzen den organoak –egun, Nafarroako Zerga Ogasunaren Zerbitzuko zuzendaria– administrazio ebazpen baten bidez ebatziko du, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da, 15/2004 Foru Legean ezarritako moduan.

Partikularrek katastroa aldatzeko ekimena baliatu ahal izan dezaten, erregistro publikoan inskribatu beharreko eskubide erreal edo jabetza titulu bat izan behar dute oinarri.

Zioak: Behin Jabetza Erregistroarekin koordinatze printzipioa onartuta, katastroaren mantentzeak eragina du harreman zibiletan, eta katastroaren aldaketa administrazioa sartuta dagoen auzien sorburu izan daiteke. Hortaz, aldaketak egiteko sistemak argia izan eta segurtasun juridikoa eskaini behar du, hala legitimazioari nola kausari begira. Lege proiektuaren testua luzeegia da, eta ez du segurtasun juridikorik ematen.

23. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 26. artikuluko 2. idatz-zatian, "kontserbazio ahalmenak" jarri ordez "mantendu eta eguneratzeko ahalmenak" jarriko du.

Zioak: 4. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat, kontserbazio lana Nafarroako Zerga Ogasunaren esku gelditzen da.

24. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 27. artikuluko 4. idatz-zatian, "hilabeteko epean" jarri ordez "bi hilabeteko epean" jarriko du.

Zioak: Errealitateari eta herritarren ahalmenari egokitzea epeak.

25. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa.

31. artikuluko 12. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Udalak ofizioz abiarazi baldin badu prozedura, udalaren eta erregistroaren artean izan beharreko lankidetzak eragiten du zentzugabea izatea ez ebaztea, eta interesdunak eskatuta abiarazi baldin bada, eutsi egin behar zaio herritarrek ebazpen berariazko bat edukitzeko duten eskubideari.

26. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kenketa egiteko zuzenketa. 32. artikuluko 9. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: 31. artikuluko 12. idatz-zatiari aurkezturiko zuzenketarekin bat etorritz.

27. ZUZENKETA**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

33. artikulutik 40.era bitartekoak aldatzeko zuzenketa.

Katastroko ondasunen balorazioa. Katastroko ondasunak baloratzeko, erregelamendu bidez ezarriko diren irizpide bateratuak erabiliko dira Nafarroa osoan.

Katastroko ondasunetako bakoitza baloratzeko ponentziak Nafarroako zerga ogasunaren kontura eginen dira, kasuan kasuko udalean egin beharreko ponentzien bidez, ondoko urratsak jasoko beharko dituen espediente bati jarraikiz: balorazio proposamena, jakinarazpena eta 15 eguneko entzunaldi pertsonalizatua interesdunei, eta ebazpena, ados egonez gero behin betikoa izanen dena eta administrazio bideari amaiera emanen diona; ados egon ezean eta inpugnatuz gero, lurzatiak aldatzeko bide berberak baliatuko dira, arestian adierazitakoarekin bat.

Zioak: Nafarroako katastro orokorrean –udal katastro guztien batura da–, baloratzeko irizpideak orokorrak izan eta erregelamendu bidez ezarri behar dira. Nafarroako udalek nahiz toki entitateek eskatzen dute balorazioa Nafarroako Ogasunaren kontura egin dadila. Prozedura aldaketa egiteko moduari lotu behar zaio.

28. ZUZENKETA**ASKOTARIKO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluan beste idatz-zati bat, 5.a, gehitze-ko zuzenketa. Hona testua:

34.5. artikulua. Balorazio ponentzien kostuak bere gain hartze aldera, Nafarroako Gobernuak udalenzako dirulaguntza sistema bat ezarriko du urtero, aurrekontu orokorren kargura.

Zioak: Balorazio ponentzien lana baliagarria da katastroarentzat nahiz Lurralde Aberastasunaren Erregistroarentzat, eta horrenbestez, Nafarroako Gobernuarentzat. Hori dela eta, gobernuak bere gain hartu behar du, gure ustez, balorazio ponentzietatik heldu den gastua. Beste administrazio batzuetan diputazioek hartzen dute bere gain kostu hori, batzuetan osorik eta beste batzuetan kostuaren %50.

29. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 38. artikuluko bigarren lerrokadaren ordezkari honako hau proposatzen da:

Era horretan kalkulatu behar diren balioa aipatu erre-
gistroan eta katastroetan jasoko da eta haren
aurka inpugnazioa jartzen ahalko da, foru lege
honen 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Zioak: Balioa ez dela nahitaez inpugnatu behar
argitzea.

30. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 42. artikuluko 3.
idatz-zatiko bigarren lerrokadan, "informazioa jaso-
ko duen pertsonaren edo pertsonen izenak eta
helbide elektronikoa bat" eta gero ondokoa gehitzea
proposatzen dugu: "edo/eta postako helbide bat"

Zioak: Baliabide elektronikoa hedatzea berez
da helburu bat, baina goizegi da herritarrek behar-
tzeko helbide elektronikoa bat izatera.

31. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa. 52. artikuluko 3.
idatz-zatiko bigarren lerrokadan, "%10etik gor-
koa" jarri ordez "ezarritako tolerantzia teknikoak
baino altuagoa" jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Erregelamendu bidez ezartzen ez diren
bitartean, seigarren xedapen iragankorrean adiera-

zitakoak dira tolerantzia horiek, eta horietan sar-
tzen da ehuneko 10 hori.

32. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

63. artikulutik 65era bitarteko artikulua (arau-
haustea eta zehapenak) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sistemak zorrotasunik ez izatea eragi-
ten dute arau-hausteen sistema horren subjektu
pasiboak –administrazioarekiko edo notariotzareki-
ko betebeharrak betetzen ez dituen herritarra– eta
arau-haustean bertan ezarritako tipologia ezak.

Berrito diogu ezen foru lege askotako zehapen
prozedurak bat ez etortzea segurtasun juridikorik
ez egotea eragiten ari dela. Zehapen sistemak
bakarra behar du izan.

33. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa.

Izendapen orokor gisa, "Higiezinen Katastroa"
proposatzen dugu.

Zioak: Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren
kontzeptua eta izendapena agertzen den artikulua
eta idatz-zati guztiei eragiten die aldaketa honek.
Izendapen horrek Nafarroako Katastroen eta
Lurraldeen Erregistroa ere ordeztu du.

Izan ere, erregistro izenak ez du tradizioz, eta
nahastu egin daitezke Jabetza Erregistroarekin eta
beste erregistro batzuekin.

Gainera, katastro izena gehitzen bazaio, sobe-
ran dago 1995eko legean ageri zen zerga adjekti-
boa, eta lege hori desagertzean nahasmena era-
gin dezake.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Etxalarko Landagain ikastetxe publikoko irakasleei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Etxalarko Landagain ikastetxe publikoko irakasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko irailaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Etxalarko "Landagain" ikastetxeari buruzko galdera egin du. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza Departamentuak 2006-2007 ikasturterako egin duen giza baliabideei buruzko plangintzan, Etxalarko ikastetxean, aurreko ikasturteetako talde eta irakasle kopuru bera aurreikusi da.

2.- Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emandako martxoaren 16ko 353/2006 Ebazpenaren bidez ezarri zen irakasleek lanaldi murriztua eskatzeko prozedura, 2006-2007 ikasturterako; ebazpen horren arabera, eskaera Giza Baliabideen Zerbitzuari jakinarazteko epearen muga 2006ko apirilaren 24a zen. Aipatu ikastetxean haur hezkuntzako espezialitatean destinoa lortu duen irakasleak eskatutako lanaldi murriztua ordezkatzeko beharra aztertu eta gero, irakasle hori ordezkatzeko proposamena egin da; horretarako, ikastetxean erabilgarri dagoen ordu-kopuruarekin aipatu lanaldi murriztua bete ahal den arren, kontuan izan da zer hezkuntza etapa den eta hiru urteko ikasleek ingelesa ez dutela ikasten. Arauan ezarritako epeaz kanpo lanaldia murrizteko eskaerarik izanez gero, eskaera egin den unean eskaera

horrek ikastetxeko plangintza orokorrean izanen lukeen eragina aztertuko litzateke.

3.- Etxalarko "Landagain" ikastetxeko instalazioek duten hobekuntzen beharra aztertu ondoren eta Etxalarko alkateak eta Hezkuntza Departamentuko teknikariek zenbait bilera egin eta gero, epe ertainean esku-hartze bateratua ezartzeko akordiora iritsi zen; alde batetik, mantentzeari dagozkion zenbait alderdi argitzeko, eta beste aldetik, instalazioak birmoldatzeari eta zabaltzeari dagozkionak.

Ikasleen matrikulatzean izandako igoera sendoak ez du instalazioen zabaltzea eragin; hortaz, udalak, beharrezkoak ziren obra guztiak eskatu zituen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeak hobetu, zabaldu eta birmoldatzeko obra proiektuak burutzearen, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuntzat laguntzak emateko deialdiaren bidez. Deialdi hori otsailaren 14ko 128/2006 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

Deialdia egin duen ebaluazio-batzordearen akta eta Ikastetxeen Zerbitzuko zuzendariak bidalitako txostena ikusita, Eskola eta Lanbide Irakasleentzako zuzendari nagusiak erabaki zuen, ekainaren 12ko 562/2006 Ebazpenaren bidez, Etxalarko Udalari dirulaguntza ematea.

Horrela, beraz, Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza eman du Etxalarko Udalak aurkezturiko txostenean agertzen diren obren % 65 eta % 50 egiteko, hain zuzen ere "Landagain" ikastetxea birmoldatzeko eta zabaltzeko lehen faseako; bigarren fasea, aldiz, dirulaguntzak eskatzeko 2007ko deialdirako utzi du.

Lehenengo jarduketa fase horretan, ondoko obrak onartu dira:

1. jarduketa: espazioak birmoldatzea

2. jarduketa (erreserban): ikastetxea handitzea

Lehenengo fase horretako obretarako 132.135,96 euroko kostua aurreikusi da; horietatik,


Hezkuntza Departamentuak 67.648,37 euro ordainduko ditu.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan

xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	